



EBBren Prentsa Bulegoa
EUZKADIko
PRENTSA IDAZKOLA



Declaración del EBB sobre la amenaza de Vox de impulsar la ilegalización de EAJ-PNV

El Euzkadi Buru Batzar ha analizado en su reunión semanal de hoy las reiteradas amenazas de Vox de instar la ilegalización del Partido Nacionalista Vasco. Dada la gravedad de esta cuestión, queremos hacer las siguientes manifestaciones:

-La libertad de Partidos Políticos es una de las principales características de los sistemas democráticos. Una de las grandezas de la democracia es que es el único sistema político que acepta en su seno a organizaciones que incluso tengan como fin alterar el propio sistema, siempre que respeten las leyes.

-Que un partido político pretenda la ilegalización de otro es una grave anomalía y una perturbación tremenda de la democracia, máxime cuando el partido amenazado con su ilegalización puede aportar una impecable trayectoria en sus 125 años de existencia y particularmente en los últimos cuarenta años en los que EAJ-PNV ha jugado un determinante papel en la institucionalización del autogobierno vasco y también en el ámbito político del Estado español desde la llamada Transición hasta nuestros días. Una trayectoria modélica en cuanto al respeto a los diferentes marcos legales vigentes, incluso de aquellos, como la Constitución española, que no contó con nuestro apoyo.

-La sociedad vasca, elección tras elección, ha respaldado electoralmente nuestro proyecto político, otorgándonos en muchas ocasiones el liderazgo en el gobierno de instituciones y también en cámaras legislativas.

-Resulta particularmente doloroso que un partido recién llegado a la democracia se autoasigne el papel de guardián de sus esencias y la capacidad de decidir quién debe ser ilegalizado. Más doloroso aún, si cabe, cuando quien pretende tal aspiración defiende posiciones



políticas que bordean, si no desbordan, los principios básicos de cualquier democracia europea. No podemos olvidar en este sentido que en el pasado hemos sufrido graves efectos perversos y utilidades espurias del propio sistema democrático, como el Partido Nacionalista alemán de Adolf Hitler o el Partido Fascista italiano de Mussolini, que llegaron al poder ganando elecciones pero que luego transformaron sus respectivas repúblicas en dictaduras atroces.

-Comprobamos entre sorprendidos y apenados que ningún otro partido político haya salido a denunciar este inaceptable planteamiento de Vox. Requerimos del resto de fuerzas democráticas un posicionamiento claro para que las amenazas de Vox encuentren una nítida respuesta de defensa de la pluralidad política y la democracia. Somos conscientes de la coyuntura electoral en la que estamos, pero consideramos que ésta es una cuestión pre-electoral, incluso pre-política, que debe tener una rápida actuación para que Vox entienda que una cosa es participar del sistema democrático y otra adueñarse de él para socavarlo y destruirlo.

-Finalmente, denunciaremos la campaña de amenazas, insultos y presiones que están sufriendo varios de nuestros candidatos y candidatas de EAJ-PNV y Geroa Bai, absolutamente intolerables y que, curiosamente (o no tanto), coinciden en el tiempo con la ofensiva iniciada por los dirigentes de Vox contra EAJ-PNV.



EBBren adierazpena Vox-ek EAJ-PNV ilegalizatzea bultzatzeko egin dituen mehatxuen aurrean

Euzkadi Buru Batzarrak gaur bere asteroko bileran aztertu ditu Vox-ek Euzko Alderdi Jeltzalea ilegalizatzea bultzatuko duela esanez behin eta berriz egin dituen mehatxuak. Gaiaren larritasuna aintzat hartuta, ondorengo adierazpenak egin nahi ditugu:

-Alderdi Politikoaren askatasuna da sistema demokratikoen ezaugarri nagusienetakoa. Demokraziaren handitasunetako bat da sistema politiko bakarra dela bere baitan onartzen dituen sistema bera aldatzea helburu duten erakundeak, legeak errespetatzen badituzte, betiere.

-Alderdi politiko batek beste alderdi bat ilegalizatu nahi izatea berez da aldrebeskeria larria eta demokraziaren kontrako eraso, batez ere ilegalizatze mehatxua jaso duen alderdiak bere sorreratik egin dituen 125 urteetan ibilbide orbangabea eskaintzen duenean, bereziki azken berrogei urteotan. EAJ-PNVk aldi honetan funtsezko eginkizuna bete du euskal autogobernuaren erakundetze prozesuan, baita Espainiako estatuaren esparru politikoan ere, Trantsizio izeneko egin zenetik gaur egunera arte. Ibilbide eredugarria egin du indarrean dagoen lege esparrua errespetatzeari dagokion aldetik, baita Espainiako Konstituzioari dagokionez ere, gure babesa jaso ez zuen arren.

-Euskal gizarteak, hauteskunderaz hauteskunde, gure proiektu politikoa babestu du, eta hainbatetan eman digu lidergoa erakundeen gobernuan eta ganbera legegileetan.

-Bereziki mingarria da ikustea demokraziara iritsi berri den alderdi batek demokraziaren esentziaren babeslearena egiten duela eta bere gain hartzen duela nor eta zer ilegalizatu behar den erabakitze ahalmena. Are mingarriagoa da halakoak bilatzen dituenak Europako edozein demokraziaren oinarriko printzipioen beste alderdian kokatuta dauden jarrera politikoak defendatzen baditu. Zentzu horretan, ezin



dugu ahaztu iraganean sistema demokratikoa asmo txarretarako erabiltzeak dakartzan ondorio larriak pairatu ditugula, besteak beste Adolf Hitlerren Partido Nazionalsozialista Alemanaren aldetik edo Mussoliniren Alderdi Faxista Italiarraren aldetik. Kasu bietan boterera iritsi ziren hauteskundeak irabazi zituztelako, baina gero beren errepublika biak diktadura anker bilakatu zituzten.

-Harrituta eta minduta ikusi dugu alderdi politiko bakar bat ere ez dela irten Vox-en planteamendu onartezin hau salatzeraz. Gainerako indar demokratiko guztien aldetik eskatzen dugu adierazpen argia egin dezatela Vox-en mehatxuek erantzun argi baino argiagoa jaso dezaten aniztasun politikoaren eta demokraziaren alde. Jabetzen gara Hauteskunde kanpaina gaudela, baina argi daukagu gai hau hauteskunderen gaineratik dagoela, politikaren gaineratik ere, eta erantzun arina jaso behar duela Vox-ek zalantzarik gabe uler dezan gauza bat dela sistema demokratikoan parte hartzea eta beste gauza, oso bestelakoa, sistemaren jabe egitea ahultzeko eta suntsitzeko.

-Amaitzeko, EAJ-PNV eta Geroa Bai ko hautagaiak egunotan jasotzen ari diren mehatxuak, irainak eta presioak salatu nahi ditugu. Guztiz onartezinak dira eta bitxia bada ere (edo ez horrenbeste), Vox-eko buruek EAJ-PNVren kontra hasi duten erasoaren aldi berean egin dira.